

FUNTSEZKO ELKARTEAK

- **Teknologia Hornitzaileak**

Pilula-ontzi digitalaren oinarrian teknologia dago, eta horregatik, aliatu teknologikoak funtsezkoak dira gure proiektuan. ARC Health Tech bezalako enpresak lagungarriak izan daitezke. Gailuen fabrikatzaileek pilula-ontzi adimenduna garatzeko beharrezko osagaiak eskaintzen dituzte: sentsoreak, kontrolagailuak eta komunikazio-sistemak. Gainera,



hodeiko plataforma hornitzaileek (Google Cloud bezalakoek) datuen kudeaketa, segurtasuna eta konektagarritasuna bermatzen dituzte, erabiltzaileen informazioa modu fidagarrian eta pribatutasuna zainduz gordetzeko.

- **Mediku eta Farmazia Kolaboratzaileak**

Osasun arloko eragileak dira gure proiektuaren bihotza. Farmaziek eta osasun-zentroek aukera ematen dute errezeten sinkronizazioa eta tratamenduen jarraipena egiteko, pazienteen beharretara egokituta, **Osakidetza** edo Sanitas bezalako klinika batekin elkartzea beharko genuke, baita ere zaharren egoitzeekin. Laborategiek, berriz, balio handia ematen dute produktua sustatuz eta haren fidagarritasuna sendotuz. Haien laguntzarekin, erabiltzaileei konfiantza eta segurtasuna transmititzen dien osasun-ekosistema eraikitzen dugu.





- **Garapen eta Diseinu Taldea**

Gure barneko eta kanpoko garapen-taldeak aplikazioaren eta backend sistemaren eraginkortasuna bermatzen du. Disenatzaile digitalek erabiltzailearen esperientzia erraztu eta irisgarritasuna lehenesten dute, bereziki adineko edo gaitasun mugatuko pertsoneri laguntzeko. LoDigitalizo, web diseinu enpresa bat, elkarte garrantzitsua izan daiteke. Gainera, osasun digitaleko adituek RGPD eta araudi medikoak betetzen direla ziurtatzen dute, datuen babes eta gardentasun maila altua mantenduz.

